

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Beaumont kontseilariak azpimarratu du Gobernuak sektore publikoaren alde egin duela "kalitatezko zerbitzuak emateko"

Legealdiaren lehen bi urteak baloratzeko emandako hitzaldian langileentzako aurrekontua 2015etik % 13 handitu dela eta lan-eskaintza publiko berriak egin dituela nabarmendu du

Osteguna, 2017.eko uztailak 20

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumontek Nafarroako Gobernuak legealdia hasi zenetik egindako esfortzua [azpimarratu du](#), "kalitatezko zerbitzu publikoak emateko eta nahikoa giza baliabideen zuzkidurarekin, gero eta eraginkorragoa den herritarren arreta ekartzen duena".



Foru Administrazioaren bulegoa.

Horrela, Beaumont kontseilaria nabarmendu du lehen bi urte hauetan Nafarroako Gobernuaren langileentzat bideratutako aurrekontua % 13 handitu dela, 2015eko 1.109 milioi eurotatik 2017ko 1.255 milioitara. Igoera hori langileen soldaten igoerari aurre egiteko, 2012tik zor zuen aparteko ordainsaria [osorik itzultzeko](#) eta [jaz onartutako lan-eskaintza publikorako](#) egin da, guztira 516 plaza eskaini direlako, Estatuak uzten duen gehieneko kopurua.

Komunikabideen aurrean egindako agerraldian, legealdiaren lehen bi urteak baloratzeko deitutakoa, Beaumontek zuzentzen duen Departamentuak egindako beste jarduera batzuei buruz ere hitz egin du, hala nola [Banda Zabalaren Plana egitea](#), zuntz optikoa foru geografia osotik zabaltzeko asmoa duena, 31 milioi eurotik gorako inbertsio publikoarekin; Gobernu Irekiaren ataria [bultzatzea](#), gardentasuna handitzeko, kontuak hobeto emateko eta informazio publikorako sarbidea sustatzeko; eta [delituen biktimei arreta emateko bulego berria](#), bere jarduera [bikoiztu](#) duena Iruñeko Justizia Jauregira aldatu denetik.

Kontseilariak nabarmendu duen beste gai bat izan da segurtasun eta larrialdi zerbitzuen bultzada, bai aurrekontu mailan (% 12,76ko igoerarekin 2017an, 2015eko aurrekontuaren aldean, Foruzaingoan, eta % 311,53koa Suhiltzaileetan), bai Foruzaingoaren langile kopurua handitzea eta langileak berritzeko, aurtun [beste 37 plazetarako](#) deialdia egin duena (nabarmendu behar da ez dela deialdirik egin 2010. urtetik); baita

Nafarroako Suhiltzaileena ere, legealdi honen zehar [ehun plaza](#) eskainiko direlako, sindikatuen ordezkariekin [lortutako akordioari](#) esker.

Balantzean M^a José Beaumontek Departamentuak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila gaur egungo gizartearen errealitatera [eguneratzeko](#) egindako lana aipatu du, baita Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura lan egiten duten langileen Estatutua berritzeko ere; oraindik Foru Komunitatera transferitu ez diren eskumenak [Estatuarekin negoziatzea](#), baita LORAFNAREN erreforma posiblea; irisgarritasun unibertsaleko [foru lege proiektu bat egitea](#), desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasuna izan dezaten.

Kontseilariarekin batera Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusi Edurne Eginoa; Barne Departamentuko zuzendari nagusi Agustin Gastaminza; Justiziako zuzendari nagusi Lurdes Aldave eta Informatika, Telekomunikazioak eta Berrikuntza Publikoko zuzendari nagusi Mikel Sagües ere izan dira.

Beste jarduera batzuk zuzendaritza nagusien arabera

Aurretik aipatutako gaiez gain, Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Gardentasun Kontseilua ere [abian jarri du](#), eta [esku hartze plan orokor](#) bat garatu du Nafarroako Jauregian, bere erabilera legeztatzeko eta arrazionalizatzeko, mantentzea bermatzeko, lan-eremu berriak gaitzeko eta narriadura eteteko.

Bestalde, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak administrazio langileek [lan eta familia bizitza uztartzen laguntzeko](#) aurreikusitako neurriak handitu ditu, eta [sistema berria](#) egin da Atalburu eta Bulegoburu guztiak [merituaren lehiaketaren bidez](#) hornitzeko 2017 eta 2018 urteen artean.

Halaber, Barneko Zuzendaritza Nagusiak Nafarroa VioGén estatu-sistemara [sartzea](#) sustatu da, genero-indarkeriaren biktimak babesteko dena; jarduera handitu da Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan; Nafarroako [foruzain guztiak](#) Foruzaingoaren informazio-sistemetan sartzen amaitu da; [kanpaina](#) bat jarri dute abian txirrindularien artean bide-segurtasuna sustatzeko, eta gairik garrantzitsuena gisa, Foruzaingoaren Gidari Plan bat egin da 2020. urterako.

Justiziako Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, Biktimen Arretarako Bulegoa Justizia Jauregira eramanez nabarmendu behar da, bitartekotza zerbitzuak [finkatu eta hedatu](#) direla alderdi judizial guztietara, arlo penal, zibil eta merkataritza arloan; epaitegien zerbitzura lan egiten duten langileak indartu direlako; eta Iruñeko Udalarekin [sinatutako hitzarmena](#) arauak hausten dituzten adingabeek judiziorik kanpoko neurriak egin ditzaten hiriburuko auzoetako talde soziokomunitarioetan.

Azkenik, Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoko Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Gobernuaren [informatika-datuak prozesatzeko bigarren zentro](#) (CPD) bat abian jartzeko lan egin du. Horrela, bi CPD-tako batek huts egiten badu, besteak normaltasunez jarraituko du lanean Administrazioak herritarrei, enpresei eta bere langileei ematen dizkien zerbitzuetan; SITNAREN [bistaratzailerik geografikoak hobetu](#) dira; telekomunikazioetako antenak instalatzeko administrazio-epeak sinplifikatu dira; software librea migratzeko plan bat egin da, eta Administrazioaren beste zerbitzu batzuei informatikoki laguntzea, hala nola Osasun arlokoak.

Horrez gain, Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Administrazioko beste unitate batzuekin batera ADELE proiektua bultzatu du, foru Gobernuaren administrazio elektronikoa behin betiko ezartzea lortzeko.

Legealdiaren bigarren zatirako erronkak

Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria txosten honen aurkezpenaz baliatu da bere Departamentuak legealdiaren bigarren erdirako ezartzen dituen erronketako batzuk jakinarazteko.

Horien artean nabarmendu behar dira lan-eskaintza publiko berrien deialdia enplegu publikoa finkatzeko eta funtzionario berriak sartzeko; sindikatuen ordezkariekin negoziatzea, langile publikoek krisi ekonomikoan galdutako erosteko ahalmena berreskuratzeko; edo antzinako Artxibo Orokorrean [obrak](#)

[amaitzea](#), bulegoetarako eremu berriak gatzeko eta horren ondorioz, langileen lan-baldintzak hobetzeko.

Horrez gain, Estatuarekin lankidetzaz hitzarmen berri bat negoziatu dutela nabarmendu du, espetxeen arloan hain zuzen, Estatuko Administrazioak duen eskumen hori transferitu arte, epaitegietan plaza berriak sortzea, Banda Zabalaren Planean barne hartzen diren jarduerak ezartzea, Foruzainetako Komisaria Nagusi berri bat eraikitzea eta heliportua Suhiltzaileen Parke Nagusira eramatea, Cordovillan (Galar).

Azkenik, nabarmendu du udazken honetan Nafarroako Suhiltzaileen langileentzako bigarren jardueraren arautegia onartuko duela nabarmendu du; gardentasuna eta informazio publikorako sarbidea arautzeko foru lege proiektuak aurkeztuko dira Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzen duena; eta esperi du Nafarroako Foruzainen Foru Lege proiektua onartuta ikustea, joan den apirilean dagoeneko Parlamentura bidal zutelako, negoziazio sindikal eta politikoaren ondorioz egiten diren aldaketekin.

Horrela, Beaumont kontseilariak esan duenez, Departamentuaren erronka ere bada 2018. urtean, administrazio publikoen zerbitzura lan egiten duten langileen Estatutuaren aldatzeko buruzko foru lege proiektua Parlamentua aurkeztea, eta Nafarroako Foru Berria idaztea edo Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioa, xede horretako sortutako parlamentuko txostenaren lanen eta Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko Aholku Batzordearen lanaren ondorioz.